



## A ERANSKINA

Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioak  
Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dauden lan-legepeko irakasle finkoak

### A.1.- Lurralde Historikoaren aldaketa eskatzeko epea ofizioz egin beharreko esleipenatarako

Ofiziozko esleipenak egin behar diren kasuetarako (eskatutako plazarik esleitzen ez den kasuetarako) erreferentziakoa ez den Lurralde Historikoaren aldaketa eskatzeko epea Hezkuntza Sailaren web orrian ezarritako EGUTEGIAREN ARABERA:

<http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>

Egungo erreferentziako lurralde historikoa mantendu nahi dutenek ez dute lurralde aldaketa eskatu beharko.

Eskaera Hezigunea atariaren bidez aurkeztuko da (<https://hezigunea.euskadi.eus/eu/inicio>), "Lurralde-aldaketa" bannerretik.

### A.2.- Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrenda

2025-2026 ikasturterako esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrenda EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian: <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

Pertsona horiek jarraian agertzen diren esleipen-talderen batean bilduko dira:

- Haien lanpostua eraldatzeagatik behin betiko destinoa hizkuntza-eskakizuna bete behar duten lanpostuetan izan eta egiaztatu ez duten pertsonak.
- Nahikoa ordu ez duen behin betiko destinoko lanpostua duten pertsonak.
- Behin betiko destinoa espresuki kendu zaien pertsonak.
- Epaia betetzeagatik behin betiko destinoa galdu duten pertsonak.
- Lanpostu huts bat betetzeko zerbitzu-eginkizun bat eman zaien pertsonak.
- Destinoaren zain dauden, edo behin-behineko destinoa duten beste pertsona batzuk.

### A.3.- Pertsonen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak egiteko epea EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean

Erreklamazioa Hezigunean erabilgarri dagoen ikasturte hasierako aplikazio informatikoan agertzen den loturaren bidez aurkeztu beharko da.



#### A.4.- Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin betiko zerrenda

2025-2026 ikasturterako esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin betiko zerrenda EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

#### A.5.- Prozesuan eskainitako lanpostuen zerrenda

Esleituko diren lanpostuen zerrenda EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean

Era berean aditzera emango da zein lanpostuk dituen ezaugarri bereziak.

#### A.6.- Parte hartzeko eskabidea betetzeko epea

Hezigunean dagoen eskabide elektronikoa betetzeko epea EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian: <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>

#### A.7.- Esleipenaren behin-behineko ebazpena

Esleipenaren behin-behineko ebazpena EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

#### A.8.- Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea EGUTEGIAREN ARABERA egongo da zabalik eta emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian: <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>

Erreklamazioa hezigunean eskuragarri dagoen ikasturte hasierako aplikazio informatikoan agertzen den loturaren bidez aurkeztu beharko da.

#### A.9.- Esleipenaren behin betiko ebazpena

Esleipenaren behin betiko ebazpena EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

#### A.10.- Aurkezpena esleitutako lanpostuan

Hautatutako pertsonak irailaren 1ean esleitutako lanpostuan aurkeztu beharko dira.